

### 3. Funtsezko elkarteak

Gure enpresak gure negozio-ideia partekatzen duen eta gure baloreak partekatzen duten askotariko negozioekin lankidetzan aritzeko asmoa du, barietatea eta eskaintzeko produktu-sorta zabala ziurtatzeko. Atal bakoitzerako hainbat enpresarekin harremanetan jarriko gara, bi ataletara elikagaiak iristen direla ziurtatuko baitugu.



Prestatu gabeko janariaren atalean, lehenik akordio bat egingo dugu supermerkatuekin, prezio baxuko elikagaiak lortu ahal izateko. Epe luzerako akordioa izango da, akordio hau errentagarria izango bai supermerkatuarentzat baita guretzat.

Horietako batzuk Carrefour, Eroski, Bm eta Lidl izango dira. Gure kolaboratzaileek elikadura ez xahutzeaz kezkatzea nahi dugu, eta gu bezala ingurumenaz kontzientziatuta egotea. Beraz, gure ideal berberak defendatzen dituzten enpresekin bat egitea gustatuko litzaiguke.

Beste laguntzaile batzuk eskoletako jantokiak izango dira; izan ere, negozio hauetan eskala handietan sukaldatzen da, eta gure negozioak eta bezeroek kontsumitu eta berrerabili ahal izango luketen janari soberakina egon ohi da. Baina jantoki bakar batekin ere adostea lortzen ez badugu, supermerkatuekin akordioak bilatzera bideratuko gara. Gure asmoa bai supermerkatuekin, eta bai jantokiekin hitz egitea da. Haien erantzunaren arabera, gure kolaboratzaileak aurkituko ditugu.

<https://www.eroski.es>

<https://www.bmsupermercados.es>

<https://www.carrefour.es>

<https://www.lidl.es>

